

opusdei.org

Prentsa- komunikatua

Opus Deiko Erromako
Informazio Bulegoak prentsa-
komunikatu hau zabaldu zuen
otsailaren 14an, ‘Da Vinci
Kodea’ filma dela eta

2006 Ots 18

Azken egunetan galdera asko iritsi
zaigu Da Vinci Kodea filmari buruz.
Urtarrilaren 12an esandakoa
errepikatu nahi genuke: ez dugu
eztabaidarik nahi; ez da izango ez
boikoterik ezta ezer antzekorik.
Egoera honen aurrean

gardentasunez eta lasaitasunez
jokatuko dugu, onerako aprobetxatu
nahian. Da Vinci Kodeak Eliza
Katolikoaren irudi desitxuratua
ematen du. Baina aukera egokia izan
liteke liburu eta film hauen
publizitatea, Elizaren egia
adierazteko.

Deus Caritas est entziklikan
Benedikto XVI.ak karitatea Elizaren
berezko ezaugarria dela dio:
“Maitasuna Elizak ematen duen
zerbitzua da, gizon-emakumeen
oinazeez eta beharrez etengabe
arduratuz” (19. z.).

Une egokia izan liteke oraingoa,
ezagutzera emateko katolikoek
Afrikan, duela mende asko, burutzen
dituzten zerbitzu lanak; eta
babesteko Elizaren erakunde
askoren ahalegina kontinente
horretan, Afrikak sufritzen jarraitzen
baitu munduko larrialdi
handienetarikoa.

Pertsona asko nahigabetu du Da Vinci Kodearen kristauen sinesteeekiko errespetu faltak; beren desadostasuna lasaitasunez eta ona bilatuz adieraztera gonbidatu nahi genuke: ezagutzera emanek katolikoek Afrikan sustatutako hezkuntzako edo lankidetzako ekimenen bat; edo diru laguntza bat emanek ekimen horretarako. Badakigu horrelako laguntza keinu sinboliko bat besterik ez dela, baina badu esanahi zehatz eta positibo bat ere.

Harambee 2006 lau egitasmok osatzen dute, Afrikako katolikok sustaturik; lauetatik bi Opus Deiko kide dira. Baina beste ekimen asko daude, denon laguntza merezi dutena, eta ez da erraza bat aukeratzea.

Da Vinci Kodeak eragindako eztabaida publikoa polemika antzu bihur ez dadin nahi genuke;

horretarako bide bat da Katolikoek Afrikan duten ekintza solidarioei buruz informatzea. Horrela lortzen da eztabaidak emaitza onuragarria uztea: Eliza Katolikoaren berezko alde bat hobe ezagutzea, eta gizaki jakin batzuei laguntzea.

Aldi berean, Sony – Columbiak erantzun positiboa emateko gai dela uste dugu oraindik. Aise ulertzen da ez dela nahikoa irainduari defendatzeko aukera ematea, iraina mantentzen den bitartean. Egoerari egoki erantzuteko iraina saihestu egin behar da, oraindik posible denean.

Hiru hilabete gelditzen dira oraindik lehen emanaldirako. Beraz, itxaropena mantentzen dugu filmaren azken edizioan katolikoak irain ditzakeen aipamenik egon ez dadin. Erabaki hori - keinu baketzaile hori - oso estimatua izango litzateke, batez ere orain,

intolerantziaren ondorio
penagarriak mintzen gaituztenean.

Sony – Columbiak ekarpen bat egin
lezake oraindik adiskidetasunera,
gaur egunean garrantzi handiko
dena: froga dezake adierazpen
askatasuna eta sinesteeekiko
errespetua uztar daitezkeela; egiazta
dezake errespetua sentsibilitatetik
sortzen den egintza askea dela, ez
zentsuraren eta mehatxuaren
ondorioa. Adiskidetzearen aldeko
erabakia hartuz gero, Sony –
Columbiak kultur arteko
elkarrizketaren auziari mesede
handia egingo lioke, eta enpresa
horien tradizio errespetagarria
ohoratuko luke.